

Herri xehearentzako alegiagilea

Gai erlijiozko eta profanoekin famatu zen Gratien Adema 'Zaldubi'; gaur ehun urte hil zen

ALBERTO BARANDIARAN

Euskal gaiak eta erlijio gaiak landu zituen, batez ere, Gratien Adema, baina herri xehea dibertitu eta irakasteko pentsatuak. Horregatik, bere alegiak, erlijio kantuek, eta baita kantu aberrikoak ere, oso ezagunak egin ziren XIX. mendearen bukaeran eta XX. aren hasieran, Ipar Euskal Herrian, bere lan guztiak argitaratu zirenean. Lore jokoekin lotutako poesiarekin alderatu ohi dute bere ekoizpena, baina gai profanoetan askatasun handiagoz jokatu zuen.

Bere lanen artean nabarmenak dira *Zazpi Euskal Herriek* poema, eta *Martin eta Kattalin*, senar-emazte ardozaleen satira, Baita *Errepublikak* bertso sorta ere. Errepublikaren etsai amorratua izan zen, baina harreman ona izan zuen errepublikazaleekin. Jean Baptiste Elizanbururen lagun mina izan zen bizitza osoan, esaterako. Euskararen akademiaren sorrera amestu zuen, baina ez zuen egitasmoa ikusi. Bihar duela ehun



Gratien Adema, Zaldubi. BIDELEAK

urte hil zen Baionan. Senperen ehortzita dago.

ELIZANBURUREKIN LARRESORON. Gratien Adema 1828ko apirilaren 14ean jaio zen, Senperen (Lapurdi). Izengoiti asko erabili zituen hainbat gairi buruz idazteko, bereziki politikarekin lotuak zeudenak, baina Senperen zuen landa baten izenetik hartu zuen gehien erabili zuena, hots *Zaldubi*. Haurtzarotik kultura eta ohitura eleantzak bizi zituen, aita gaskoina baitzen. Hamalau urte bete arte Senperen egin zituen oinarritzako

ikasketak, baina 1842an Larresoroko apaiztegi tipian sartu zuten. Han elkartu zen Elizanbururekin.

Bi lagunek hainbat olerki idatzi zituzten elkarrekin, eta alegiak euskaratzen aritu ziren. Eta ustez jostaketerako asmo hutsez ere, ale bitxi batzuk idatzita utzi zituzten, apaiztegiko giroari buruz: «*Zoin dohatsu gu hemen, jeunesse fortunee! Bortz orenak arte, la grasse matinee! Jaiki orduko lana; plus tard le jedeneur! Hobeki ditakeia commencer la journee?*». Biak bertsozaleak ziren, bistan denez. Baina Elizanburuk armada hautatu

zuen, eta Adema, berriz, apezgoa. Larresorotik Baionako apaiztegi nagusira joan zen, eta apeztegi gero Larresorora itzuli zen, irakasle. Apaiztegiaren buru izan zen, Atharratzen artzapez, eta Baionan kalonje.

Askotan esan izan da berandua hasi zela idazten, baina *Martin eta Kattalin* lanaren lehen bertsioa 1851ekoa da. *Pilotariak* neurtiza, berriz, 1857koa.

LORE JOKOEI ESKER. 1973ko Lore Jokoei garaile atera zen, Saran, bi alegiarekin. Hari esker, bere fama Euskal Herri osoan hedatu zen, eta aldizkari askotan argitaratu zituen neurtitzak. Halaber, Jean Hiriart Urrutik zuzentzen zuen *Es-kualduna* astekarian idazki batzuk argitaratu zituen.

1992an Azpeitiko Euskal Jaie-tan omenaldia egin zioten, eta bertan harremanak egin zituen Resurreccion Maria Azkue eta beste euskaltzale batzuekin. Zaldubik kezka bizia zuen euskal akademia noiz eratuko ote zen. Berak uste zuen Antoine Abadiak erakunde hori sustatuko zuela, baina lore joko bultzatzaile nagusia hil egin zen helburua gorpuztu gabe. Horrek etsipenez bete zuen Adema.

1901ean Euskal Literatur Elkar-teko lehendakari izendatu zuten,

Hendaian, baina bilera hura leher-tu zenean, askok Zaldubiri bota zioten errua, Iparraldeko euskaltzaleek utzi egin baitzuten elkar-tea.

79 urte zituen Baionan hil zenean. Handik bi urtera, RIEV aldizkarian argitaratu zituen bere lan gehienak. Argitaratu gabe utzi zuen bere egunerokoa. Hogeita hamar urteko esperientzia.

Koldo Mitxelena ustez, poeta izan zen ezer baino gehiago. Elizanbururekin alderatuta, ez hain berritzailea, gaiak ere murriztagoak, «baina mintzaira eta bertsoke-ra eredugarriaren jabea». Garbi dago, nolana ere, alegietan eman zuela bere onena. Bere gizarteari buruzko gogoetaz zipriztindu zituen, eta politikan sartu zen bete-betean, ezizenari esker. Baina hitz lauzko lanen egilea ere izan zen, eta etimologia eta hizkuntz erka-keta landu zuen. Lan horiek gal-duak dira, hala ere.

Bi liburuxka ere utzi zituen frantsesez argitaraturik, erreboteko jo-koaz bata, Aldudeko herriaz bes-tea.

Denera, hamazortzi alegia idatzi zituen, eta poema satirikoak, Errepublikaren aurkakoak eta euskal aberriaren aldekoak. *Zazpi Euskal Herriek* lanean batasune-rako deia egin zuen, euskara berta-ko hizkuntza bakartzat aldarrika-tuz, eta erlijioa berezko osagarri gisa aurkeztuz. Sinbolo gisa, zazpi adarreko haritza baliatu zuen, eta baita Gernikako arbola ere.

Durangoko azokan **berria**ko erakusmahaian salgai

Agenda 2008



12 €

Harpidedunek: 10 €

Egutegia 2008



5 €

Euskal Herriko onddoen gida



12 €

Harpidedunek: 6 €

Astakiloen abenturak

8 liburu eta DVDa



39 €

Harpidedunek: 29 €

Jaia laia

Musika munduko jolastokian
CD bilduma



43 €

Harpidedunek: 34 €

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**